

Seguraski beste komunikabi-deen bitartez jakingo zenuten ZERUKO ARGIAren baitan gertatu diren aldaketen berri. Baina gure irakurle zaretanoi zuzenkako esplika-zioa zor dizuegulakoan, hona hemen zehazki prozesu guztiaren berri.

Jakingo duzue noski ZERUKO ARGIAk, legez kaputxinoena izanez jarraitu arren, bere bizitza au-tonomoa zuela urte batzutatik hona aldizkariari zegokion guztian, zer kontenido izan behar zuenetik hasi eta aldizkariaren finantziaketarako bideak aurkitzera arte. Kaputxinoekin zegoen lotura bakarra, legezko jabetza hortatik at, zera zen, beraien lokaletan egiten zela aldizkaria. Martxa horretan aurkitu genuen gaur egun ZERUKO ARGIAren ekipoa osatzen dugunok aldizkaria, eta horri jarraitu besterik ez dugu egin.

ZERUKO ARGIA, gure eskutara

Gauzak honela, eta franquismoaren garaiean beharrezkoa zen lege babesaren beharrik ez izatean, normala iruditu zitzaigun orain dela urtebete inguru kaputxinoek esan zigutena, alegia, aldizkaria gure eskutan utzi nahi zutela.

Erabaki hori hartu baino lehen aztertuak zituzten beste alternatiba batzuk: bate, aldizkaria ixtea, baina hau bereala baztertu zuten; bestea ZERUKO ARGIA berriro aldizkari erligioso bihurtzeko posibilitatea, kaputxinoak bakarrik hori egiteko gai ikusten ez zirelarik —idazle faltagatik batipat—, Gipuzkoako gotzaiari eskaintza hori eginerik, baina hor ere ez zuten horretarako biderik ikusten. Beste alternatiba bat, eskaintza egin zuen «talde integrista» bati —kaputxinoen hitzetan jartzeko— saltzea aldizkaria.

Talde horrek, diruaz gain, erligio izpirituari eustea, inolako talde politiko eta sindikalek aldizkarian sarrerarik ez izatea, eta orduan lan egiten zuen ekipoari bertan eustea agintzen zuen. Baina irtenbide hau ere ez zuten bidezkotzat jo kaputxinoek, nahiz eta hitzak onak izan, bigarren eta hirugarren puntuak be-

“argia”ri irailerako bidea prestatzen

teko ez zirelakoan. Azkenik, aldizkaria bertan lan egiten zuen ekipoa-ren eskutan uzteko alternatiba zegoen, eta hau autatu zuten kaputxinoek.

Guri planteiatu zigutenean, nahiz eta garbi ikusi ez ginela karga makalaren jabe egiten, beste biderik aurkitzen ez genuelarik Hego Heuskal Herrian dagoen euskara hutsezko astekari bakarrari momentuz behintzat eusteko, onartu egin genuen gure eskutan hartzeko proposamena.

ARGIA, lokalik gabe

Kaputxinoekin egindako tratuak hiru puntu zekartzan berekin: bata, aldizkariaren izentzat ARGIA hartzea, ZERUKO ARGIA izeneko mantxeta kaputxinoek gordetzen dutelarik bost urtetan ez erabiltzeko konpromisoarekin; bigarrena, Okendo 22ko lokalak, kaputxinoek direlarik, uztea, errenta baten bitartez hori jarraitzea onartu ez zu-

telarik, beraien izena aldizkariaren martxatik erabat askatu nahiz. Hirugarrena, duela urte batzutatik ZERUKO ARGIAk beraiekin zuen zorra —600.000 pezeta inguru-koa— ordaintzea.

Baldintza hauek dakarten arazorik latzena lokalana da, kale gorrian geratzen baikara Okendo 22a uzteko dugun epetik aurrera, irailaren 30etik aurrera. Esan beharrik ez dugula ezer erosteko modurik eta guretzat egokia izango litzatekeen tokia alokatzeko ezerik ere ez dugula, hain baita larria ekonomi egoera.

Izan ere, orain arte ZERUKO ARGIAri eutsi ahal izan bazaio, lokalak dohan izatez gainera, kolaboradoreek xentimorik ere kobratu gabe eta bertan egun osoz lan egi-



ten dutenek soldata oso urriak jasotzearen bitartez izan da, aldi berean jendearen eskuzabaltasunera joz zuzenki nahiz ekintza batzuen bitartez bilduz dirua.

zerbitzu publikoari, intituzioek erantzun behar

Frogatua dugu eta nahi duenari erakutsi diezaiokegu, euskara hutsezko aldizkari bat ezin dela garairik hoberenetan ere, berez eutsi. Eta izan ere edozein hizkuntzatan mintzalariei eta irakurleentzatean ematen den erlazioa gaundituz ibili zen ZERUKO ARGIA, eta hala ere ezin autofinantziatu. Gaur egun, prentsa guztiak jasaten duen krisi-sari Euskal Herrian elebidun deitua euskara hutsezkoari egiten dion kaltea kontutan izanez, ohartuko zarete ez dela hau ZERUKO ARGIArentzat garairik onena. Guzti honi, guk egin dugun azterketan, aldizkariari azkenaldian somatzen zitzaion interes falta batzen diogu. Izan ere ohartu baikara gainerantzeko prentsarekin konpetitu nahi ezta edo, kalean gehien bizi ziren arazoetatik urrutu samar ez ote garen ibili. Laburki esateko, aldizkaria

—euskaraz izan arren— ez ote dugu egin behar bezain interesgarri eta atraktiboa. Eta «euskaraz izan arren» diogu, hau baita oraindik arazo nagusia —Eta aldi berean aldizkariari zentzua ematen diona— edozertarako.

Guzti honegatik —eta editorialean esana ez errepikatzeagatik ez gara luzatuko puntu honetan— euskaraz argitaratzen den edozein aldizkari euskara eutsi eta zabaltzeko zerbitzu publikoa eskaintzen duenez, instituzio publikoen laguntza ekonomikoa behar luke.

Hori gertatzen ez den bitartean, eta inizatiba pribatuak ere euskarazko aldizkari ondo muntaturik sortzera ez duela jotzen ikusiz, hut-sunerik gerta ez dadin, numeroen logikari begiratzuz gero baztertu egin beharko genukeen lan honetan jarraitzea erabaki dugu, ahal dugun arte.

irailan, zuen laguntzaz, aldizkari eraberritua

Jarraitu, aldizkariari eutsi ahal izateko kanporako lanak eginez.

grafismoaren arloan dela (kartel, pegatina etabarren diseinuak, argazkiak) itzulpen eta kazetagitzen dela. Hauek dira ZERUKO ARGIA kooperatiba osatu dugunok eskain ditzakegun zerbitzuak.

Hala ere, zuei, irakurleoi, eta euskarazko kazetagitzen alde dagoen guztiari laguntza eskatu behar. Oraingoan, dagoeneko anuntzioaren bitartez ezagutuko dituzuen bonoak atera ditugu. EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ elkartea, LA VOZ eta UNIDADeko langileak eta beste zenbait jende ari zaigu laguntzen bono hau zabalkundean. Beste askoren laguntza ere espero dugu, erantzun behar dutenek erantzuten ez duten bitartean, zuek eta guk egin beharko baitudugu ahalegina.

Ez dugu uste frustratuko zaituegunik. Iraila arte ikusiko ez badira ere aldizkariaren barrengo aldaketak —garai hau, oporrena, ez dugu egokitzen jo horretarako— lanean ari gara, «euskaraz izan arren» interesgarri eta atraktiboa gertatu den aldizkaria egin nahiean. Euskararen borroka, inoiz baino latzagoa gure ustez, behinere baino gertuagotik jarraitu eta bultzatuko dugulokoa. Eta besteak beste, mundu horretan dabilen guztiaren bilduleku eta plaza izango delakoan ARGIA berriro.

ZERUKO ARGIA
KOOPERATIBA

milesker laguntzaileei

Eskerrak eman beharrean gaude hilaren 4an kaputxinoek eta guk elkarrekin eskaini genuen prentsaurrekoaren oihartzun izan ziren komunikabide guztiei, Berdin bonoen zabalkundean laguntzen ari zaizkigun EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ elkarteari, LA VOZ eta UNIDADeko langileei eta beste lagun guztiei.

Aldi berean gogoraratzen dizuegu horretan parte hartu nahi baduzue, ZERUKO ARGIAra —Okendo 22. Tel: 427786— deitu ala etorri besterik ez duzuela.

